

2026/3/10

#### 7.4. Frankismo berantiarraren krisia

Arlo soziopolitikoari dagokionez, 1969tik 1974ra, agerian geratu zen erregimenaren ezegonkortasuna. Horren barruan kontraesanak eta krisia ziren nagusi lehia zeuden bi tendentzia indartu zirelako erregimenaren barruan: irekitzearen aldekoak, liberalagoak zirenak (Fraga, Calvo Sotelo, etab.), eta immobilistak, eskuin muturrekoak zirenak (Carrero Blanco, Arias Navarro, etab.).

1973an, Francok gobernuari uko egitean eta bera hil ostean erregimenari jarraipena emateko asmoz, Carrero Blanco, gobernuko presidente hautatzeak sektore immobilista indartsuenak zirela erakutsi zuen. Honen asmoa erreformarik ez egitea eta oposizioa gogor zapaltzea zen, baina ETAK erregimenaren etorkizunerako kolpe ikaragarria eman zuen 1973ko abenduaren 20an Madrilen Ogro operazioan Carrero Blanco hil zuenean. Horren ondorioz, 1974ko urtarrilean, Francok Arias Navarro gobernu buru jarri zuen.

Oposizioaren jardura politikoa indartu egin zen eta talde armatuak ugaritu ziren (ETAz gain, <sup>ETA Eskertiar formakuntza</sup> FRAP eta GRAPÓ). Gobernuaren errepresioa gogortu egin zen eta 1975eko abuztuan Lege Antiterrorista onartu zen, heriotza-zigorra ezartzen zuena.

1975eko azaroaren 20an diktadorearen heriotzarekin, frankismoaren amaiera etorri zen, Espainiako trantsizioari hasiera emanez. Azaroaren 22an Gortek Juan Carlos Borboikoa Espainiako errege izendatu zuten.

Arlo ekonomikoari dagokionez, nazioarteko egoera aldatu zen 70eko hamarkadan eta zailtasunak sortu ziren hazkunde geldiaraziz. Espainiak 60ko hamarkadan izandako hazkunde ekonomikoaren oinarriak ahulak ziren. 1973an nazioarteko petrolioaren krisia lehertu zenean, Espainian eragin handia izan zuen.

Krisiaren ondorioz, emigrazioa ahuldu egin zen, lanpostuak murriztuz eta langabezia handituz. Horrek inflazioa haztea eta turismoa jaitea eragin zuen, prezioak ez baitziren lehen bezain merkeak. Egoera horrekiko nahigabeak grebak eta protesta sozialak eragin zituen. Nazioarteak guzti horren berri izan zuenean kanpoko inbertsioen beheraldia eman zen eta esportazioak murriztu ziren.

Horrela amaitu zen Espainiako oparoaldi ekonomikoa, ekonomian eta politikan sistemak zituen akatsak agerian utziz.